

**TXOSTENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BERME ETA EBALUAZIO BATZORDEA
SORTU ETA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA EGIN AURREKO
KONTSULTA PUBLIKOAN IZANDAKO PARTE HARTZEARI BURUZKOA. BATZORDE HORI
EZARTZEN DU EUTANASIA ARAUTZEN DUEN MARTXOAREN 24KO 3/2021 LEGE
ORGANIKOAK.**

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatua dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratu ahal du herritarren parte-hartzea izan den proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan.

Eutanasia arautzen duen martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordea. Batzorde hori sortu eta arautuko duen foru dekretuaren proiektua egiteko, aurretik jendaurreko kontsulta argitaratu da, webgune honetan:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos-de-articipacion/propuestas-gobierno/previas>.

Kontsulta hori maiatzaren 3tik maiatzaren 21era bitartean egon da jendaurrean, biak barne. Ekarpinak helarazteko, mezu elektronikoak bidali behar ziren helbide honetara: planificacion.evaluacion@navarra.es, interesdunaren nortasuna adierazita. Jendaurreko aldiari sei ekarpen jaso dira:

1. ekarpena:

Nafarroako Unibertsitateko Klinikak adierazi du Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordean parte hartzeko nahia, eta balizko kide aditu gisa proposatu du Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko irakasle titular eta Nafarroako Unibertsitatearen Iruñeko Klinikako zainketa intentsiboetako unitateko zuzendari den pertsona.

6. ekarpena:

Nafarroako Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak proposatu du osasun arloko gizarte langileak parte hartzea Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordeko kide gisa.

Ekarpen horiek jasotzen dira Berme eta Ebaluazio Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautuko duen foru dekretua egiteko hurrengo prozesuan baloratzeko.

2. ekarpena:

Herritar batek, bere izenean, legearen prozedurari buruzko zalantzak adierazi ditu, eta uste du ez dela egokia izan Nafarroako ospitale guztietan zainketa aringarrien ekipo egokiak jarri aurretik onestea.

4. ekarpena:

Nafarroako Unibertsitateko Klinikako Etika eta Deontologia Medikoko Batzordeak zenbait gogoeta idatzi ditu, 3/2021 Legea garatuko duen foru-erregulazioak, lege horretan gairen bat itxi gabe gelditu bada, hori argitu dezan, eta teknikarien batzorde bat sortzea proposatu dute, Berme eta Ebaluazio Batzordeari aholkularitza emateko. Teknikari horiek prestakuntza kliniko, etiko eta deontologiko egokia duten adituak izanen lirateke.

5. ekarpena:

Herritar batek, bere izenean, hausnarketak eta ekarpenak helarazi dizkio Eutanasia arautzen duen martxoaren 24ko 3/21 Lege Organikoaren testuari berari.

Ekarpen horiek ezetsi egin dira, Eutanasia arautzen duen martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak ezartzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordea sortzeko prozesutik kanpo daudelako.

3. ekarpena:

Herritar batek, bere izenean, eskerrak eman ditu partaidetza-prozesuagatik, eta adierazi du pozik dagoela Eutanasia Arautzeko Legea onartzeagatik, uste baitu legea aplikatzeko legeak berak eskatzen dituen mekanismoak abian jarriko direla, jardunbide egokiak bermatuz eta aurreikusitako epean.

Eskerrak ematen ditugu egindako iradokizun eta ekarpenengatik, eta adierazi nahi dugu eragile horiek kontuan hartuko ditugula hurrengo partaidetza-fasean, eta Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordea sortu eta arautzen duen foru dekretuaren proiektua egiten jarraituko dugula.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 25ean

Genoveva Ochando Ortiz
Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzua
Osasun Departamentua